

# Bero-beroan

## Chipayak euskararen tankera du?

**NILA VIGIL** hizkuntzalariaren *Instituto Lingüístico de Invierno* webgunean (<http://nilavigil.wordpress.com/>) sartu gara. Peruko hizkuntza indigena kopuruaz idatzitako artikuluan erreparratu dugu eta baita youtubeko bideoan ere. Rodolfo Cerrón-Palominok hizkuntzalariak aurkeztu berri duen liburua (*El chipaya o la lengua de los hombres del agua*) aitzakia hartuta, chipaya hizkuntzari buruz hitz egin du telebistan. Halako batean elkarrizketatzaileak, liburua eskuan duela, esan dio hizkuntzalariari chipayaren grafiari esate baterako euskararen tankera hartu diola. Hizkuntzalariak euskara irla linguistikoa dela azpimarratu dio, baina aipatu du baita ere hizkuntza andinoek eta euskarak egituraren nolabaitako tankera dutela. Dena dela, gehiago nabarmendu du

chipaya hizkuntzak kitxuarekin eta aimararekin duen mendetako harreman estua.

Huroa peruar-boliviarrak altiplanoko herririk zaharrena da eta aldi berean hizkuntza familia. Bada chipaya, familia horretatik biziraun duen hizkuntza bakarra da. Aimara eta kitxua baino lehenagoko hizkuntza da. Ezetz asma-tu zergatik iraun duen bizirik? Cerrón-Palominok elkarrizketan dioenez, aimarek baztertu eta umiliatu zituztelako, eta egoera gogor eta isolatu horretan aurrera egitea lortu zuten. XX. mendean hizkuntza galtzeko arriskuan izan ziren, alegia, 1930-40ko hamarkadetan aimaraz zein chipayaz hitz egiten zuten eta galtzorian zegoen chipaya. Orain, aimara albo batera utzi dute eta bigarren hizkuntzatzat gaztelania hartu dute. Cerrón-Palominoren ustez orain ez dago galtzorian eta huroen herriak geratzen diren hiztun bakar horiek harro daude.

## Euskararen Jatorriaren III. Biltzarra

**LANGRAITZEN (ARABA)** egingo da biltzarra maiatzaren 17an. Bilkura egiteko Iruña-Veleia –antolatzaileek Oka-Iruña deitzea proposatzen dute– aukeratu dute, beraien ustez, udalerririk horretan aurkitutako idazkunek euskararen jatorria argitzen laguntza handia eskainiko dutelako. Jardunaldietan hain zuzen, indusketa horien balioaz hitz egingo du Patxi Alañak. Josu Naberanek emango duen hitzaldiak berriz, ondokoa du goiburua: *Toponimiaren ekarpena aitzin euskarari* eta Alfontso Martinez Lizarduikoa eskainiko duenak honakoa: *Euskara historiaurreko Europaren hizkuntza*. Mahai-ingurua izango da euskararen oinarritzko hamabi hitzen etimologiari buruz eta han izango dira Bittor Kapanaga, Jesus Segurola, Felix Zubiaga, Josu Naberan eta Antonio Arnaiz, besteak beste.

## TALAIAN

### Iberdrolaren etorkizuna

Ostegunean egingo da Iberdrolako Akziodunen Batzar Orokorra Bilbon. Batzarra enpresa elektrikoaren kontrola lortzeko hainbat mugimendurekin batera iritsi da. Azken zazpi urteotako laugarren erasoa du Iberdrolak oraingo hau. Eta azken mugimenduek Gas Naturalerantz jotzen dutela dirudi. Aurrez Endesa zein Gas Natural bera saiatu ziren. Eta aurten bertan, EDF elektrizitate enpresa frantziarra ere saiatu da, ACS eraikuntzako enpresa espainiarraren laguntzarekin. Iberdrolaren egoera oso tentagarria da: 40 herrialdetan dago; 26.000 langile ditu, 10.000 Hego Euskal Herrian eta Espainian; Burtsan 60.000 milioi euro inguruko balioa du eta 2007an 2.353 milioi euroko mozkin garbiak izan zituen, aurreko urtean baino %41,8 gehiago.

Gasteizko Legebiltzarrak Iberdrola osoa –ez zatikatua– eta egoitza Bilbon duena eskatu du. Horretarako arrazoiak irabazi fiskalak eta euskal enpresen zerbitzuen azpikontratazioa dira. Irabazi fiskalak, 1.500 milioi euro ingurukoak izan dira azken urteetan eta azpikontratazioak, 1.600 milioi euro ingurukoak. Errealitateak adieraziko digu, ordea, egun bizi dugun ekonomia kapitalistan, etorkizuna multinazionalen kapitalean egongo dela eta horrek erabakiko du. Ondorioz, enpresa elektrikoak akziodunek, handi batzuek izan ezik, Eusko Legebiltzarrak bezalaxe, ezer gutxi egin ahal izango dute. Jaki-na da handienek euren negozioaren alde egiten dutela, gehien eskaintzen diren alde. Beste gauza bat litzateke sektore elektrikoa nazionalizatzea, beste sektore estrategiko batzuekin egin den bezala; eta horrela enpresak ez luke gehiago erasorik jasango. Hori, ordea, beste istorio bat da.

Juan Mari Arregi

## Ekainaren 14an Mintza Eguna

**TOPAGUNEAK** udaberri bukaerarako antolatu du III. Mintza Eguna eta Bizkaiko Algorta eta Itzabaltzeta / Romon egingo da festa. Euskal Herri osoetik etorritako 400 bat berbalagun biltzea espero dute, alegia, euskara dakitenak eta ikasi berriak elkartuko dira. Gaur egun 46 udalerritan 2.500 berbalagun edo mintzalagun daude.

## Ibaizabaltb.com

**BILBO** ingururako euskarazko tokiko telebista katea sortzea dute xede Ibaizabal Mendebalde kultur elkarteak eta Hamaika taldeak. Orain, lehen urratsa eman dute, Internet bidezko telebista: [www.ibaizabaltb.com](http://www.ibaizabaltb.com).



## Arrasate: gobernatzea gaitzestea baino gaitzagoa da

**IÑIGO URKULLUK** EAJ-ren lidergoa eskuratu zuenean jeltzaleen baitan kontsentsuaren irudia gizarteratu zen, jakinda ere sumendi barruan labak borborka jarraitzen zuela. Hauteskunde emaitza txarrak, Arrasateko zentsura mozioarenak eta Txabarri-Jauregi aferak, tentsioa berriz

azaleratu dute indarrez. Amorrazioa eta barne borroka –ez lehia bakarrik– gupidagabea da berriz islatzen ari dena, batez ere Gipuzkoan, eta zeharka baita EAJ osoan ere. "Egibarren beroaldia", Txabarri alderdia uzteko gonbitea, Arrasateko zentsura mozioa dela eta EBBren erabakiekiko desadostasuna... Irudi aldetik harrigarria herritarren artean eta latza EAJ zaleentzat.

PSEko buruzagiak, aldiz, pozarren dira egoeraz, jeltzaleen ahuleziak hauekiko akordioetan abantaila ematen dietelakoan batetik, eta bestetik, "ari ari ari Patxi lehendakari" leloa gizentzen duelako.

Bitartean, kontsulta dela eta Jaurilaritzaren bide orriaz diren zalantza gero eta sendoadoek Ibarretxe lehendakariaren lidergoa

IÑIGO AZKONA



KARLOS CORBELLA



higatzen jarraitzen dute. Hirukoaren baitan kontsulta indargabetzeko adierazpenek –Ardanza, Galdos, Madraza...–, halaber, Ibarretxeren posizioa ahultzen laguntzen dute. Indefinizio egoerak, dena den, ezin da gehiegi luzatu; Moncloako iturrien arabera, bederen, Jose Luis Rodriguez Zapaterok maiatzerako du aurreikusia Ibarretxerekin biltzea eta pentsatzekoa da ordurako lehendakariak argi adierazi beharko diola Zapaterori bere bide-orria zein den.

**ARRASATEKO** zentsura mozioarenak jarraituko du, antza, eszenatoki politikoaren ardatz egunotan. Eta ikusten den moduan, kontu bat da bat egitea Isaias Carrascoren hilketaren arbuioan eta gaitzespenean, eta oso bestelakoa, batasun hori gobernagarritasu-

nerako ardatz bilakatzea. Hipotesi uherretan sartzeko arriskua dago hala-koetan, baina ETAK Carrasco arrasatear militante sozialista hautatu izana, ez dirudi auzaz hartutako erabakia. Min egitea eta hor dagoela erakustez aparte, badirudi bere jarduna arbuizatzen dutenen barne kontra-

sanak ere haizatu nahi izan dituela.

Datorren astean Arrasateko Udalean zentsura mozioa aztertuko dutenean, ia bi hilabete igaroak izango dira martxoaren 7an Carrasco hil zutenetik. Egoera politikoaren eta herrietako errealitatearen konplexutasunaren agerle dira egun horiek guztiak. Oraindik argi dagoen bakarra PSE, EAJ eta PPko zinegotzien jarrera da. EB, Zutik eta EAkoak zalantzan dira eta Aralarrekoak adierazi du jada ez duela mozioarekin bat egiten. Oso posible da Arrasateko Zutik eta EBko batzarrek zentsura mozioaz bat ez egitea eta sostengatuko balute ere, ezin da zinegotzien dimisiorik baztertu. Eta mozioa gauzatzen bada, EBk, Zutiketik eta EAk sostengatu behar dute hiru urtez Gobernu berria?



# BARAKALDO

Apirilaren 18tik 27ra arte, Los Hermanosen

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

*Bizi irakurriz!*